

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Enpresa bat sortzean, garrantzitsua da honek bezeroekin izango duen harreman mota definitzea.

Harremana, mota ezberdinetakoa izan daiteke:

- Harremana pertsonala izan daiteke, bezero bakoitzarekin aurrez-aurre egonez. Gure kasuan, denda fisikoaren bitartez, bezeroekin harreman zuzena izateko ahalmena izango dugu, eta horri esker beraiek dituzten galderak erantzuteko ahalmena ere izango dugu.
- Automatizatua izan daiteke, web-aplikazioen edota erantzungailu automatikoen bitartez. Denda fisikoa izango dugu, baina ez da nahikoa izango, bezero gehiagotara (munduan zehar) iristeko web-orri bat izango dugu.



Bestalde, hainbat harreman mota egon daitezke aldi berean enpresa baten eta bere bezeroen artean:

- Laguntza pertsonala, gure web-orrian, bezeroekin kontaktuan egoteko e-mail bat prestatu dugu, eta bidalitako galderak erantzungo dizkiegu e-mail horren bitartez.
- Dedikatutako laguntza pertsonala, lehen aipatu dudan moduan, bi denda mota izango ditugu, eta horiei esker bezeroei laguntza pertsonala eman ahalko diegu. Bai e-mailez eta bai fisikoki.
- Automatizatutako zerbitzuak, gure web-orrian kontaktuan jartzeko aukera emango ditugu, eta aldi berean bakoitzak nahi duena erosteko ahalmena izango du internet bitartez.